

Hitzak bakarrik ez dira nahikoak

Jaurlaritzak benetan lan erreforma arbuiatzen badu, hasi gaitezen eraikitzen



“Hitzak bakarrik ez dira nahikoak”. Hitz horiekin erantzun die LABeko idazkari nagusi Ainhoa Etxaidek atzodamu Angel Toña, Jaurlaritzako Enplegu Sailburuak, eginiko adierazpenei. Toñak onartu zuen lan erreforma ez dela gai izan enplegua sortzeko; are gutxiago kalitatezkoa. Adierazpen hauen aurrean Etxaidek mezua luzatu dio Jaurlaritzari: “Benetan lan erreforma arbuiatzen badu, hasi gaitezen alternatiba eraikitzen”.

LABek azpimarratu nahi du lan erreformak ez duela esandakoa bete bere helburua ez baitzen hori. Sindikatuak hasieratik salatu zuen erreforma honek ez zuela enplegurik sortuko, prekarietatea eta gizartean desberdintasunak areagotuko zirela eta lan merkatuaren desarautzea ekarriko zuela. Aberatsak gero eta aberatsago izateko, pobrezia ekarri du jendartearen gehiengoarentzat. Erabateko boterea eman zaio patronalari eta negoziazio kolektiborako eskubidea deuseztatu dute. Hori da errealitatea. Hiru urte eta erdi behar izan ditu Jaurlaritzak ondorio horretara iristeko. Baina orain hitzetatik ekintzetara pasatzeko unea da. Lan erreformaren ondorioei aurre egiteko prestutasuna ez da nahikoa, erabakiak hartu behar dira eta urratsak eman.

Elkarrizketa sozialeko mahaia eratzeko orduan Jaurlaritzak egiten zuen diagnostikoa, alegia, Aburtok abiatutako ildoak, eta atzoko Toñaren adierazpenak ez datoz bat. Beraz, Toñak behingoz argitu beharko du elkarrizketa sozialeko mahaiaren ibilbidea zein izango den, bere momentuan ez baitzen eratu sakoneko eztabaidei ekiteko, ez eta lan munduko benetako arazoei erantzuteko. Elkarrizketa sozialeko mahaiak ez dio langabeziaren arazoari, ezta lan munduaren prekarizazioari, are gutxiago babes sozialaren suntsiketari, erantzuten.

Jaurlaritzak erabaki behar du gaurdaino bezala Confebasken morroi izaten jarraitu behar duen edo morrontza horretatik askatu eta prest dagoen, egoerak eskatzen duen moduan, gaurko elkarrizketa sozialeko mahaia desegin eta beste bat sortzeko. Confebask bada arazoa bestelako erabakiak hartzen hasteko, Confebask gabe aurrera egiteko prestutasuna beharko luke Jaurlaritzak, patronalarekiko duen menpekotasuna gaindituz. Elkarrizketa sozialeko mahaiaren aurrean LABen jarrera aski ezaguna da. LABen iritziz dena erabakita dagoenean, eta inposizioaren bidez emana datorrenean, ez dago akordio posiblerik.

Lan erreforma alboratu eta beste bide bat behar dugu. LABek mahai gainean jarria du horretarako proposamena. Aberastasuna banatzeko erreforma fiskala ezinbestekoa da, enpresako irabaziek ez dezaten,



orain arte bezala, betikoen poltsikoetan eta paradisu fiskaletan amaitu. Beharrezkoa da enplegua sortzeko lanaldiaren murrizketa; enplegua hobetzeko hitzarmenak gaurkotzea eta hobetzea; langabezian eta prekarietatean dauden pertsonen babesa eta eskubide soziala ziurtatzeko politikak aurrera eramatea EH osoan. Eztabaida horietan daude konponbideak eta eztabaida horiei bide emateko eskua luzatzen du LABek. Lan mundua berrantolatu beharra dago. Lan harremanaterako bestelako eredu jasoko duen eredu sozial berri bat defendatzen dugu. Eta eztabaida horri ekiteko prest dago LAB. Herri honek eztabaida horiei ekin behar die. Hori da gure bidea eta Euskal Herriko langileekiko gure konpromisoa. Bide hori egiteko prestutasunik bada, LAB hor izango da.